

III. Atala / Sección III

**Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Administración Autonómica del País Vasco****Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila****Bizkaiko Kirol-Lokalen eta Kirol-Zelaien sektoreko hitzarmen kolektiboa (hitzarmen kodea zenbakia 48001455011981).**

Erabakia Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Bizkaiko Lurralde ordezkariena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Kirol-Lokalen eta Kirol-Zelaien sektoreko hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zenbakia 48001455011981).

Aurrekariak

Telematikaren bidez aurkeztu da, ordezkaritza honetan, patroien ordezkapenak (CEBEK) eta sindikatuen ordezkapenak (UGT, CCOO eta LAB) sinatutako hitzarmen kolektiboa.

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa: Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24an EBO) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua — Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezarzen duena (2013ko apirilaren 24an EHAA) — dionarekin bat etorri eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15ean EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12an EBO) — hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak — lotuta.

Departamento de Empleo y Políticas Sociales**Convenio Colectivo del Sector Locales y Campos Deportivos de Bizkaia (código de convenio número 48001455011981).**

Resolución del Delegado Territorial de Trabajo, Empleo y Políticas Sociales de Bizkaia del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo del Sector Locales y Campos Deportivos de Bizkaia (código de convenio número 48001455011981).

Antecedentes

Por vía telemática se ha presentado en esta delegación el convenio citado, suscrito por la representación patronal (CEBEK) y la representación sindical (UGT, CCOO y LAB).

Fundamentos de derecho

Primero: La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015 de 23 de octubre («BOE» de 24 de octubre de 2015) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 19.1.g del Decreto 191/2013, de 9 de abril «BOPV» de 24 de abril de 2013) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero, («BOPV» de 15 de febrero de 2011) y con el Real Decreto 713/2010 de 28 de mayo («BOE» de 12 de junio de 2010) sobre registro de convenios colectivos.

Bigarrena: Sinatutako hitzarmenak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Hitzarmen Kolektiboaren Erregistroaren Bizkaiko Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Bilbon, 2016ko apirilaren 8an.—Bizkaia Lurraldeko Ordezkaría, Josu de Zubero Olaechea

BIZKAIKO LOKAL ETA FUTBOL-ZELAIEN KOLEKTIBOKO HITZARMENA 2015-2017

1. artikulua.—*Funtzio-eremua eta lurralde-eremua*

Hitzarmen kolektibo hau probintzia-esparrukoa da, eta Bizkaiko probintziako Kirol Taldeari atxikitako lokal eta ikuskizunetako lanari dagokion estatuko araudian sartutako enpresa guztiak hartzen ditu bere baitan. Azpitalde hauek hartzen ditu barne: igerilekuak, frontoiak, bolatokiak, golf-zelaiak, futbola, erakusketa-azokak, kirolerako jauregiak, uso-tiroa, ur-kirolak, zaldi-kirolak, eta beste, baita kirolarekin lotura duten eta langileak behar dituzten ikuskizun guztiak ere.

2. artikulua.—*Esparru pertsonala*

Hitzarmen honek kirol-arloko enpresa, elkarte edo erakundeen mende eta haien kontura lan egiten duten langile guztiak hartzen ditu eraginpean, hitzarmen honen indarraldiak irauten duen bitartean, langile horien lanbide-kategoria edozein izanik ere.

3. artikulua.—*Indarraldia*

Hitzarmen honen iraupena 3 urtekoa izango da, 2015eko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arte. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko ordainsari ekonomikoen ondorioetarako soilik egingo du atzera.

Hitzarmen hau jakinarazitzat joko da, ondorio guztietarako, 2017ko abenduaren 1ean. Hitzarmen berriaren negoziazioak 2018ko urtarrileko lehen hamabostaldian hasteko konpromisoa hartu dute alderdiek.

Hitzarmen kolektiboak 30 hilabete jarraituko du indarrean, hitzarmena jakinarazten denetik aurrera. Hortik aurrera, hitzarmena indargabetu egingo da, Langileen Estatutuko 86. artikulua erekin bat etorritz.

Hitzarmena sinatu duten alderdiek Hitzarmena urtero luzatzea erabaki dute.

4. artikulua

Hitzarmena indarrean egongo den lehen urterako, 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, 2014ko KPI igotzea gehi 2014ko ordainsari-tauletan %1,5 aplikatzea erabaki da; hau da, 2014ko KPI aintzat hartuta, %0,5eko igoera dakar 2014ko urteko ordainsari-tauletan.

Hitzarmena indarrean dagoen bigarren urterako, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, 2015eko KPI igotzea gehi 2015eko ordainsari-tauletan %0,75 aplikatzea erabaki da. Hau da, 2015. urteko KPI aintzat hartuta, %0,75eko igoera dakar 2015eko ordainsari-tauletan.

Hitzarmena indarrean dagoen hirugarren urterako, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, 2016ko KPI %80 igotzea erabaki da, 2016ko ordainsari-tauletan gainean aplikatuta; hau da, %1eko igoera dakar aurreko eragiketarako igoera txikiagoa badu.

Hitzarmen honetan adostutako ordainsarien igoera ezingo da xurgatu edota konpentsatu enpresek ezarrita dituzten borondatezko hobekuntzekin.

Segundo: El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero: Ordenar su inscripción y depósito en la Sección Territorial de Bizkaia del Registro de Convenios Colectivos, con notificación a las partes.

Segundo: Disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 8 de abril de 2016.—El Delegado Territorial de Bizkaia, Josu de Zubero Olaechea

CONVENIO COLECTIVO DE LOCALES Y CAMPOS DEPORTIVOS DE BIZKAIA 2015-2017

Artículo 1.—*Ámbito funcional y territorial*

El presente Convenio Colectivo es de ámbito Provincial y obliga a todas las empresas que encuadra la reglamentación nacional de trabajo de Locales y Espectáculos afectos a la Agrupación de Deportes en la provincia de Bizkaia y que comprende los subgrupos siguientes: Piscinas, Frontones, Boleras, Campos del Golf, Fútbol, Ferias de Muestras, Palacios de Deporte, Tiro de Pichón, Deportes Náuticos, Hípicos, etc., y todo espectáculo que sea deportivo y precise personal para su desarrollo.

Artículo 2.—*Ámbito personal*

Este Convenio afecta a todos/as los/as trabajadores/as, sea cual fuere su categoría profesional, que durante su vigencia, trabajen bajo dependencia y por cuenta de las empresas, sociedades u organizaciones de deportes.

Artículo 3.—*Vigencia*

La duración de este Convenio se establece por 3 años, desde el 1 de enero de 2015 al 31 de diciembre de 2017, entrando en vigor el mismo a partir de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y retro trayéndose únicamente los efectos económicos salariales a 1 de enero de cada año.

Este Convenio se entenderá denunciado a todos los efectos el 1 de diciembre de 2017. Las partes se comprometen a iniciar las negociaciones del nuevo convenio colectivo en la primera quincena del mes de enero del año 2018.

El Convenio colectivo mantendrá su vigencia durante 30 meses a partir de la denuncia del convenio fecha en la cual el presente convenio decaerá de conformidad con el artículo 86 del Estatuto de los Trabajadores.

Las partes firmantes podrán acordar la prórroga anual del Convenio.

Artículo 4.—*Salarios*

Para el primer año de vigencia del Convenio, del 1 de enero al 31 de diciembre de 2015, se acuerda un incremento del IPC del 2014 más un 1,5% aplicado sobre las tablas salariales de 2014, que conocido el IPC del año 2014, supone un incremento del 0,5% sobre las tablas del año 2014.

Para el segundo año de vigencia del convenio, del 1 de enero al 31 de diciembre de 2016 se acuerda un incremento del IPC del 2015 más un 0,75% aplicado sobre las tablas salariales del 2015 que conocido el IPC del año 2015 supone un incremento del 0,75% sobre las tablas del año 2015.

Para el tercer año de vigencia del Convenio, de 1 de enero al 31 de diciembre de 2017, se acuerda un incremento del 80% del IPC de 2016 aplicado sobre las tablas salariales del año 2016 con un incremento del 1% en el supuesto de que la operación anterior arroje un incremento inferior.

Los incrementos salariales pactados en el presente Convenio no podrán ser absorbidos ni compensados con las mejoras de carácter voluntario que tengan establecidas las empresas.

Hitzartutako ordainsarien igoerak aplikatzearen ondoriozko zenbakeok garraioaren plusa hartzen dute barne.

Enpresek 2015eko ordainsariak eguneratu eta dagozkien atzerapenak ordaindu ahal izango dituzte, gehienez ere hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bigarren hilabeteko azken egunera arte, eta, edozein kasutan, gehienez ere 2016ko maiatzeko nomina muga izanik.

5. artikulua.— *Antzinasuna*

Langilea enpresan sartzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen antzinasuna (probaldia ere zenbatuko da antzinasunerako), eta dagokion laurtekoa betetzen den hilaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Laurteko horiek antzinasun-tarte bakoitza finkatzean indarrean dauden ordainsarien %5 aplikatuz ordainduko dira. Edonola ere, kontzeptu honengatik soldataren %60 ordaindu ahal izango da.

6. artikulua.— *Aparteko haborokina*

Hitzarmen honen eraginpeko langileek orain arte bezalaxe jasoko dituzte hilabete bateko soldataren gehi antzinasunaren balio-kidea den haborokina, apirilaren 15ean, uztailaren 15ean, urriaren 15ean eta abenduaren 15ean.

7. artikulua.— *Oporrak*

Urteko oporraldia egutegiko 32 eguneko izango da.

Enpresan jarduera handitu egin dela-eta opor guztiak urrian, azaroan, abenduan, urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean hartu behar dituzten langileek, 2 opor-egun gehiagorako eskubidea izango dute; hilabete horietan 15 egun hartzen badituzte, opor-egun 1 gehiagorako eskubidea izango dute.

Enpresaren opor-egutegian finkatutako oporraldi horretan (aurreko paragrafoan aipatua) langileak aldi baterako ezintasunen bat badu —esate baterako, haurdunaldia, erditzea eta edoskialdia—, oporrek beste egun batzuetan hartzeko aukera izango du. Era berean, Langileen Estatutuaren Legeko 48.4 eta 48.bis artikuluetan agertzen den kontratu-eternaldiarekin kointziditzen badu, artikuluko horien arabera dagokion etenaldia amaitu ostean hartu ahal izango ditu langileak oporrak. Eta aipatutako bi kasu horietan (aldi baterako ezintasuna eta kontratu-eternaldia), oporrak beste egun batzuetan hartu ahal izango dira, baita oporraldiari dagokion urte naturala bukatu bada ere.

Aurreko paragrafoan adierazitako kontingentziaz besteko arrazoiak direla-eta, oporraldia heltzean langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago eta ezin baditu opor guztiak edo haien zati bat hartu oporrei dagokien urte naturalean, ezintasun-egoera amaitzean hartu ahal izango ditu, oporretarako eskubidea sortu den urtearen amaieratik hemezortzi hilabete baino gehiago igaro ez badira.

8. artikulua.— *Gaixotasuna*

Aldi baterako Ezintasun egoeraren (AE) edo lan-istripuaren kasu guztietan hitzarmen honen eraginpeko langileei euren hileko ordainsarien %100 ordainduko diete enpresek, betiere gehienez 18 hilabetez.

9. artikulua.— *Lanaldia*

1. Urtean 1.710 orduko lanaldia ezarri da. Denboraldi-ko-dranteak egin daitezke honako hauek zehazteko: lantegietako langile bakoitzaren lanaldia, ordutegia, txandak eta atsedanak. Horretarako, sektorea osatzen duten enpresen ezaugarri bereziak hartuko dira kontuan.

Sindikatuaren ordezkariarekin negoziatuko da urteko lan-egutegia, eta urteko lehen lauhilekoan argitaratuko da. Ezin izango da lan-egutegia aldatu langileen ordezkariari aldaketa horien arrazoiak jakinarazi gabe edo eraginpean dauden langileei aldaketa horietarako beharrezkoak diren eperik eman gabe. Hartara, langileen ordutegia eta lanaldien banaketa nahiz lanaren bestelako antolaketa-moduak eta atsedan-orduak zentzuzkoak eta malguak izatea bultzatuko da, langileen bizitza pertsonala, familia eta lana uzartzeko eskubidea bateragarria egiteko, enpresen jarduera hobetzeko aukera atzera bota gabe.

Las cantidades resultantes de aplicar los incrementos salariales pactados incluyen el plus de transporte.

Las empresas podrán practicar la actualización de los salarios y el abono de los atrasos correspondientes al año 2015 como máximo hasta el último día del segundo mes siguiente al de la publicación del convenio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y en todo caso como límite en la nómina de mayo de 2016.

Artículo 5.— *Antigüedad*

La fecha inicial del cómputo de la antigüedad será la del ingreso del/a trabajador/a en la empresa, computándose a éste efecto el período de prueba y que surta efecto desde el primer día del mes en que se cumple el cuatrienio correspondiente. Dichos cuatrienios se abonarán a razón del 5% sobre los salarios vigentes al consolidar cada tramo de antigüedad. En todo caso el tope a percibir por este concepto será del 60% del salario.

Artículo 6.— *Gratificaciones extraordinarias*

Los/as trabajadores/as afectados/as por este Convenio, seguirán percibiendo como lo vienen haciendo hasta la fecha, las Gratificaciones de una mensualidad más la antigüedad los días 15 de abril, 15 de julio, 15 de octubre y 15 de diciembre.

Artículo 7.— *Vacaciones*

El período anual de vacaciones retribuidas será de 32 días naturales.

Aquellos/as trabajadores/as que por razones de mayor actividad en la empresa tengan que disfrutar la totalidad de sus vacaciones en los meses de octubre, noviembre, diciembre, enero, febrero, marzo, abril y mayo, tendrán derecho a 2 días más de vacaciones, y si disfrutan 15 días tendrán derecho a 1 día más de vacaciones.

Cuando el período de vacaciones fijado en el calendario de vacaciones de la empresa al que se refiere el párrafo anterior coincida en el tiempo con una incapacidad temporal derivada del embarazo, el parto o la lactancia natural o con el período de suspensión del contrato de trabajo previsto en el artículo 48.4 y 48.bis de esta Ley, se tendrá derecho a disfrutar las vacaciones en fecha distinta a la de la incapacidad temporal o a la del disfrute del permiso que por aplicación de dicho precepto le correspondiera, al finalizar el período de suspensión, aunque haya terminado el año natural a que correspondan.

En el supuesto de que el período de vacaciones coincida con una incapacidad temporal por contingencias distintas a las señaladas en el párrafo anterior que imposibilite disfrutarlas, total o parcialmente, durante el año natural a que corresponden, el/la trabajador/a podrá hacerlo una vez finalice su incapacidad y siempre que no hayan transcurrido más de dieciocho meses a partir del final del año en que se hayan originado.

Artículo 8.— *Enfermedad*

Los/as trabajadores/as afectados/as por este Convenio percibirán de sus respectivas empresas y en todos los casos de baja por I.T. o accidente laboral, el 100% de sus retribuciones mensuales hasta el límite de 18 meses.

Artículo 9.— *Jornada*

1. La jornada se establece en 1.710 horas anuales pudiéndose elaborar cuadrantes de temporada donde se concrete la jornada, horario, turnos y descansos de cada trabajador/a del centro de trabajo atendiendo a las especiales características de las empresas que componen el sector.

Se negociará con la representación sindical el calendario laboral anual, debiendo ser publicado en el primer cuatrimestre del año. No se podrá alterar el calendario laboral sin informar a los representantes de los/las trabajadores/as de las causas de dichos cambios y proporcionar plazos suficientes a los/las trabajadores/as afectados/as por la modificación, promoviendo la racionalización y flexibilización de los horarios, distribución de las jornadas u otros modos de organización del trabajo y descansos que permitan compatibilizar el derecho de conciliación de la vida personal, familiar y laboral de los trabajadores/as sin desestimar la mejora de la actividad de las empresas.

2. Adierazitakoa aintzat hartuta, jarduera bereziengatik beharrezkoa duten enpresek —egoeraren arabera beharizan jakinengatik edo egutegia zehazteko unean dagoen beste edozein baldintzarengatik—, langileen ordezkariekin hartutako erabakiaren bidez, langileekin, edota enpresen aplikatu diren usadioei eta ohiturei jarraikiz, hasiera batean finkatutako egutegia aldatu ahal izango dute zerbitzuaren beharizan artatzeko eta zerbitzua ematen dela bermatzeko.

3. Langileen Estatutuko 34.2 artikuluan araututako lanaldi irregularren ondorioetarako, gehenez ere urteko lanaldiaren %5eko muga ezarri da. Baldintza hauetan aplikatuko da ehuneko hori:

- Ezin izango da langileen opor-egunen gainean aplikatu.
- Lanaldia luzatzen denean, ohiko lanaldiaren segidan soilik egin ahal izango da.
- Ordu horiek ohiko ordutzat joko dira ondorio guztietarako, eta, kontrakoa adosten ez bada behintzat, ezin izango dira diruarekin konpentsatu.
- Konpentsatzeko orduak alderdiek adostuta hartuko dira. Beraz, adostasunik ez badago, enpresak denborarekin konpentsatu beharko ditu horiek baliatu eta 14 astean zehar. Hala, langileek ez dute inola ere gaindituko urteko gehieneko lanaldia, eta atsedenerako lanaldi osoetan hartzen ahaleginduko dira.

4. 6 ordu baino gehiagoko etenik gabeko lanaldietan, 15 minutuko atsedena ezarri da. Enpresak eta langileak adostuko dute. Atsedendialdiak adierazitakoak baino luzeagoak direnean, atseden-ordu horiek hartzeko eskubideari eutsiko zaio, eta enpresan ohikoa dena errespetatuko da.

10. artikulua. — Gaueko lanaren plusa

Hitzarmen honetan finkatutako soldatei %30 erantsiko zaie gaueko txandetan aritu diren langileek egiten dituztenean. Artikulu honetan ez daude bilduta gaueko lanetarako berariaz kontratatutako langileak.

11. artikulua. — Lizentziak

Langileek kasu hauei dagozkien soldatak adierazten den denborarako jasotzeko baimena izango dute adierazten den denborarako:

1. Ezkontidearen, guraso zein seme-alaben, eta ezkontidearen gurasoen heriotzagatik: 6 egun.
 2. Anai-arreben, ezkontzako anai-arreben, biloben eta aitona-amonen heriotzagatik: 3 egun.
 3. Izeba-osaba eta iloba propioen heriotzagatik: egun 1.
 4. Seme-alaben ezkontzagatik, bataioagatik eta jaunartzeagatik: egun 1.
 5. Anai-arreben, ezkontzako anai-arreben, iloba propioen eta biloben ezkontzagatik: egun 1.
 6. Egunduan ohiko bizilekua aldatzeagatik. Ohiko bizilekutzat joko da enpresaren erregistroan agertzen dena.
 7. Semea-edo alaba jaiotzeagatik, legezko egiaztagiria aurkeztuta: 4 egun.
 8. Interesduna ezkontzeagatik: 21 egun.
 9. 3 egun ahaideen (lehen mailako odolkidetasun- edo ahaidetasun-mailara arte) gaixotasun larriengatik, eta 2 egun bigarren mailako odolkidetasun- edo ahaidetasun-mailako senideen gaixotasun larriengatik edo ospitaleratzeagatik, edota ospitaleratzetik ez, baina etxeko atsedendia behar duten interbentzio kirurgikoagatik.
 10. Beharrezkoa den denborarako, eta indarrean dagoen legeak ezartzen duen kasuetan, azterketetara joateko.
- Langileak bere bizilekutik 200 km-tik gora dagoen herri batera joan behar duenean, 2 egun gehiago izango ditu kasu guztietan.

Ospitaleratzeagatik baimena ematen den kasuan, enpresarekin aurretiaz adostuta, ospitaleratzeak irauten duen bitartean hartu ahal izango dira egunak.

2. Sin perjuicio de lo anterior, las empresas que lo requieran por las especiales características de su actividad, por necesidades coyunturales concretas o por cualquier circunstancia desconocida en el momento de la fijación del calendario, mediante acuerdo con la representación de los trabajadores, con los/las trabajadores/as o siguiendo los usos y costumbres se hayan venido aplicando en la empresa, podrán modificar dicho calendario inicialmente prefijado, para atender a las necesidades del servicio y garantizar la prestación del mismo.

3. A los efectos de la jornada irregular regulada en el artículo 34.2 del Estatuto de los Trabajadores se establece un límite máximo del 5% de la jornada anual, que deberá ser aplicada en los siguientes términos:

- No podrá aplicarse sobre los días de vacaciones del/a trabajador/a.
- Cuando se prolongue la jornada solo se podrá hacer de forma continuada a la jornada ordinaria.
- Estas horas serán consideradas como ordinarias a todos los efectos y salvo pacto en contrario no podrán compensarse económicamente.
- El disfrute de las horas de compensación se hará de mutuo acuerdo y a falta de dicho acuerdo la empresa deberá compensarlas en tiempo durante las 14 semanas siguientes a su utilización de forma que el/la trabajador/a en ningún caso exceda la jornada máxima anual y procurando que su disfrute se lleve a cabo en jornadas completas de descanso.

4. En jornadas continuadas de más de 6 horas se establece un descanso de 15 minutos pausa que será acordada entre empresa y trabajador/a. En aquellos casos en los que se lleven a cabo pausas de descanso superiores, se mantendrá el derecho a su disfrute, respetándose lo que sea habitual en la empresa.

Artículo 10. — Nocturnidad

Los salarios fijados en este Convenio serán incrementados en un 30% cuando sean realizados por trabajadores/as en relevos de noche, entendiéndose que no quedan afectados/as por este artículo, los/as trabajadores/as que hayan sido contratados/as específicamente para los trabajos nocturnos.

Artículo 11. — Licencias

El personal tendrá derecho a que se le conceda permiso con percepción de los salarios correspondientes en los siguientes casos y por el tiempo que se expresa:

1. De 6 días por fallecimiento del cónyuge, padres e hijos/as y padres del cónyuge.
 2. De 3 días por fallecimiento de hermanos/as, hermanos/as políticos/as, nietos/as y abuelos/as.
 3. De 1 día por fallecimiento de tíos/as y sobrinos/as carnales.
 4. De 1 día por boda de hijos/as, bautizo y comunión.
 5. De 1 día por boda de hermanos/as, hermanos/as políticos/as, sobrinos/as carnales y nietos/as.
 6. De 1 día por cambio de domicilio habitual, teniendo tal consideración aquel que figura en el registro de la empresa.
 7. De 4 días por nacimiento de hijo/a con la correspondiente justificación legal.
 8. De 21 días por boda del interesado/a.
 9. De 3 días por enfermedad grave de parientes hasta primer grado de consanguinidad o afinidad y de 2 días por enfermedad grave u hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario para los parientes de segundo grado de consanguinidad o afinidad.
 10. Por el tiempo necesario, y en los supuestos que marca la Ley vigente, para concurrir a exámenes.
- Cuando el trabajador o la trabajadora tenga que desplazarse a localidades distantes más de 200 km de su residencia, contará con 2 días más en cada caso.
- En el caso del permiso por hospitalización la fecha de disfrute previo acuerdo con la empresa podrá disfrutarse mientras dure la hospitalización.

Medikuarengana joateko edo 12 urtetik beherako seme-alaba adingabeei medikuarengana laguntzeko baimena (soldatarik gabekoa).

Lanaldiko ordutegitik kanpo medikuarengana joatea edota adingabeko seme-alabei medikuarengana joatea ezinezkoa den kasuetan, eta aurretiaz justifikatuta, langileek baimen hori eskatu ahal izango dute.

Hitzarmen hau sinatzean, edozein absentzia betetzeko barne-sistema duten enpresek sistema hori aplikatuko dute baimen hori hartzean.

Sistema hori formalki edo izatez ezarrita ez duten enpresek, berriz, protokolo bat ezarriko dute. Enpresak sistemarik edo protokolorik ezarrita ez badu, langileek kide batekin txanda aldatu ahal izango dute, edo, bestela, beste une batean berreskuratu falta-ordu horiek. Adierazitako bi aukera horietatik bat ere ezarri ezin bada, dagokion nominaren baimena deskontatuko da.

12. artikulua.—*Eszedentziak*

Eszedentziak legezko araudiarekin bat etorritik hartuko dira.

Enpresaren eta langileen artean aurretiaz adostuta, urtean gutxienez hilabeteko eszedentzia hartzeko aukera egongo da, langilearen lanpostua gordeta eta antzintasuna zenbatuta 10 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko.

13. artikulua.—*Edoskitzeko baimena*

Emakumezko langileak lanean ordubeteko etenaldia egiteko eskubidea izango du bederatzi hilabetetik beherako seme edo alaba bakoitzeko; denbora hori zati bitan bana dezake titia edo biberioia emateko. Emakumeak, bere borondatez, eskubide horren ordez lanaldia ordubetetz murriz dezake, helburu berberekin.

Lanaldian etenaldia egiteko edo lanaldia murrizteko eskubide hori aitak baliatu ahal izango du, ama langileak lizentzia horri uko egin diola egiaztatuz gero.

Langileak aurreko paragrafoan adierazitako lizentzia erabiltzea, edo edoskitzeko orduak pilatzea aukeratu ahal izango du. Azken aukera horretan, egunez egun zenbatuko dira edoskitzeko orduak, amatasun baja hartu eta berehala.

Gai horri buruzko guztia Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta hori garatzen duten arauak xedatutakoari jarraiki arautuko da.

14. artikulua.—*Laneko arropa*

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileek honako hauek jasoko dituzte enpresaren kontura eta urtebetez:

Atezaina eta zaintzaileak:

- Trajea (jaka, praka, alkandora eta gorbata).
- Bi zapata pare.

Mantentze-lanak eta zerbitzuak:

- Atal bakoitzera egokitutako bi uniforme oso.
- Bi zapata pare.

Kanpoko lanak egiten dituzten langileei uretako arropak eta beroki egokiak emango zaizkie.

Artikulu honek enpresan 4 hilabete baino gehiago daramatzaten eta lanaldi osoan diharduten langile finkoak bakarrik hartzen ditu kontuan.

Arropa berria hartzean erabilitako arropa entregatu beharko dute langileek, eta enpresek ematen dituzten ekipamendu guztiek erabili gabekoak izan beharko dute.

15. artikulua.—*Lan arriskutsuak, toxikoak edo nekagarriak*

Lan horietakoren bat egiterakoan eranskinean finkatutako soldatak %20 igoko dira, %25 horrelako bi egiten direnean eta %30 hiru egiten direnean.

Permiso sin sueldo para acudir al médico o acompañar a hijos/as menores de 12 años al médico.

En caso de que no resulte posible acudir al médico o acompañar al hijo/a menor fuera del horario de trabajo y previa justificación los/las trabajadores/as podrán solicitar este permiso.

Las empresas que a la firma del presente convenio tuvieran un sistema interno para cubrir cualquier ausencia aplicarán dicho sistema al disfrute de este permiso.

Las empresas que no tuvieran establecido un sistema formalmente ni de hecho, deberán establecer un protocolo. Si la empresa no tuviese ni un sistema ni un protocolo, los/las trabajadores/as podrán bien cambiar el turno con un compañero/a o bien recuperar las horas de ausencia en otro momento. Si ninguna de las dos opciones anteriores es posible, se descontará el permiso de la nómina correspondiente.

Artículo 12.—*Excedencias*

Las excedencias se resolverán conforme a la normativa legal.

Previo acuerdo entre empresa y trabajador/a, podrá concederse una excedencia de al menos 1 mes al año con reserva del puesto de trabajo y cómputo de antigüedad para el cuidado de hijos/as menores de 10 años.

Artículo 13.—*Lactancia*

La trabajadora tendrá derecho a una pausa de 1 hora diaria en su trabajo, que podrá dividirse en 2 fracciones cuando lo destine a la lactancia natural o artificial de su hijo menor de 9 meses. La mujer por su propia voluntad podrá sustituir este derecho, por una reducción de la jornada de trabajo de una hora con la misma finalidad.

El derecho a la pausa o reducción en la jornada para la lactancia podrá hacerse extensivo al padre, quien deberá acreditar la renuncia a esa licencia por parte de la madre trabajadora.

La trabajadora podrá optar por hacer uso de la licencia a que se refiere el párrafo anterior, o bien acumular las horas de lactancia computándose día a día según el calendario de la trabajadora, inmediatamente después de la baja maternal.

Todo lo referido a esta materia se regulará observando la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, o reglamentación legal posterior.

Artículo 14.—*Ropa de trabajo*

El personal afectado por el presente Convenio, recibirá a cargo de la empresa y por año:

Portero y Vigilantes:

- Un traje (chaqueta, pantalón, camisa y corbata).
- Dos pares de zapatos.

Mantenimiento y Servicios:

- Dos uniformes completos adecuados a cada sección.
- Dos pares de zapatos.

El personal que realice trabajos en el exterior, la empresa les proveerá de prendas de abrigo y agua.

Este artículo afecta solamente a los/as trabajadores/as fijos con más de 4 meses en la Empresa, y que cumplan jornada completa.

Los/as trabajadores/as deberán entregar la ropa usada a cambio de la nueva, siendo todos los equipamientos entregados por las empresas a estrenar.

Artículo 15.—*Trabajos peligrosos, tóxicos o penosos*

Los salarios fijados en el Anexo I serán incrementados en un 20% cuando se realicen uno de estos trabajos, en un 25% cuando se realicen 2 de ellos y en un 30% cuando se realicen los tres.

16. artikulua.— Mediku azterketak

Enpresek urtero osasun-azterketa egin beharko diete langileei, eta azterketa hori egokituta egongo da langileak egiten duen lan-jarduerara.

Enpresaburua da bere zerbitzuko langileen osasuna zaintzeko arduraduna, lanak dituen arriskuen arabera, eta, beraz, nahitaezkoa da langileen osasun-egoera aldizka aztertzen dela bermatzea.

Banakako zaintza Osasun Ministerioak argitaratutako protokolo medikoak aplikatuz garatuko da, gai horretan indarrean dauden arauak modu egokian betetzeko berariazko osasun azterketen bidez.

Sektorea, Langileen Estatutuko 84.4 artikuluaen arabera, Kirol-instalazioen eta gimnasioen estatuko hitzarmen kolektiboak kasuan kasu jasotzen dituen lan-arriskuak prebenitzeko gutxieneko arauen eraginpean geratuko da.

17. artikulua.— Aparteko konpentsazioak

Enpresan 10 urteko antzintasuna duten langileek, 57 urte betetakoan, enpresa euren borondatez uzten badute, soldata gordineko bi hileko soldata jasoko dute aparteko ordain gisa.

Erabateko ezintasun iraunkorra, lan-istripuagatiko ezintasuna edo heriotza dela-eta, Enpresan zerbitzuak emateari uzten dioten langileek soldata gordineko 3 hileko soldata jasotzeko eskubidea izango dute, eta hiltzen badira beren legezko oinordekoek jasoko dute kopuru hori.

18. artikulua.— Igandeko atsedendia

Hitzarmen honen eraginpeko enpresen ezaugarri bereziak direla-eta, enpresa horietako langile guztiak eskubidea izango dute hilean igande bat izateko beren asteko atsedendia.

Hori gertatzen ez bada, langileek asteko atsedendia egun bat gehiago izango dute hilean.

Enpresaren eta langilearen arteko akordioaren bidez, konpentsazio-egun hori oporrei erantsi ahal izango zaie.

Artikulu honek urtean 11 igandetan baino gutxiagotan atsedendia hartzen duten langileak bakarrik hartuko ditu eraginpean.

20. artikulua.— Goragoko edo behegoko kategoriako lanak

Beharrezkoa denean, enpresak hitzarmen honetan jasotako langileei agindu dakieke gehienez ere bi hilabeteko epean (etenaldirik gabe) goragoko kategoriako lanpostua betetzeko egoera horretan dagoen bitartean. Gauzatzen duen eginkizunari dagokion ordain-saria jasoko du, eta aldaketa hori eragin duen arrazoia desagertzen denean, lehengo egoerara itzuliko dira langileak.

Artikulu honetan ezarritakoa ez da beteko honako kasu haue-tan: aldi baterako ezintasunagatiko, amatasunagatiko, oporregatiko, lizentziagatiko eta eszedentziagatiko (enpresak nahitaez eman behar du eszedentzia) ordezkapen kasuetan. Kasu horiek indarrean egongo dira bitarteko egoera hori sorrarazi duten inguruabarrek iraun bitartean. Langileari ez zaio lanpostua finkatzeko eskubiderik emango, baina bai bi lanpostuen soldaten arteko aldea kobratzeko eskubidea.

21. artikulua.— Lege-araubidea

Legez dagozkien ondorioetarako, Kirol Instalazioei eta Gimnasioei buruzko Estatuko Hitzarmen Kolektiboak hartuko da kontuan.

22. artikulua.— Gabonetako poltsa

Gaur egun arte, abenduan Eguberrietako poltsa ematen zuten enpresetako langileek poltsa berdina jasoko dute. Poltsa horren balioa itundutako soldataren ehuneko berean igoko da.

Artículo 16.— Revisión médica

Las empresas están obligadas a realizar una revisión médica anual a sus trabajadores/as y dicho reconocimiento será adaptado a la actividad profesional desarrollada por el trabajador/a.

El empresario/a es el responsable de la vigilancia de la salud de los trabajadores/as a su servicio, en función de riesgos inherentes al trabajo y por tanto, resulta obligatorio garantizar la vigilancia periódica del estado de salud de los trabajadores/as.

La vigilancia individual se desarrollará aplicando los protocolos médicos publicados por el Ministerio de Sanidad y Consumo, con exámenes de salud específicos dirigidos a un cumplimiento adecuado de la normativa vigente en esta materia.

El sector queda sometido de conformidad con el artículo 84.4 del Estatuto de los Trabajadores a las normas mínimas de prevención de riesgos laborales que en cada momento recoja el Convenio Colectivo estatal de instalaciones deportivas y gimnasios.

Artículo 17.— Compensaciones extraordinarias

Todos/as los/as trabajadores/as con 10 años de antigüedad en la empresa, cuando cesen voluntariamente en la misma, a partir de 57 años de edad, recibirán como compensación extraordinaria 2 mensualidades de salario bruto.

Los/las trabajadores/as que por razón de incapacidad absoluta permanente, incapacidad por accidente laboral o fallecimiento, dejen de prestar sus servicios en la Empresa, tendrán derecho a percibir 3 mensualidades de salario bruto, siendo esta cantidad recibida por sus herederos legales en caso de fallecimiento.

Artículo 18.— Descanso dominical

Dadas las especiales características de las Empresas afectadas por el presente Convenio, todos/as los/as trabajadores/as de las mismas tendrán derecho a que 1 domingo al mes coincida con su día de descanso semanal.

En el caso de que no se dé esta circunstancia, los/as trabajadores/as tendrán como compensación 1 día más de descanso semanal al mes.

Mediante acuerdo entre la Empresa y el/la trabajador/a, este día de compensación podrá acumularse a las vacaciones.

Este artículo afectará solamente a aquellos/as trabajadores/as que descansen menos de 11 domingos al año.

Artículo 20.— Trabajos de categoría superior e inferior

El personal incluido en el ámbito de este convenio podrá ser destinado por la empresa, en el caso de necesidad, a ocupar un puesto de categoría superior, por plazo que no exceda de dos meses ininterrumpidos percibiendo, mientras se encuentre en esta situación, la remuneración correspondiente a la función que efectivamente desempeña, reintegrándose el personal a su puesto anterior cuando cese la causa que motivo el cambio.

Lo dispuesto en este artículo no será de aplicación en los casos de sustitución por incapacidad temporal, maternidad, vacaciones, licencias y excedencia cuya concesión sea obligatoria para las empresas. En estos últimos supuestos comprenderá todo el tiempo que duren las circunstancias que las hayan motivado, sin que otorguen derecho a la consolidación del puesto, pero sí a la percepción de la diferencia económica durante la sustitución.

Artículo 21.— Remisión legal

A los efectos legales que procedan se tendrá en cuenta el Convenio Colectivo Estatal de Instalaciones Deportivas y gimnasios

Artículo 22.— Bolsa de navidad

Los/as trabajadores/as seguirán percibiendo la misma bolsa de Navidad en diciembre en aquellas empresas que lo venían haciendo hasta la fecha, incrementándose su valor en el mismo porcentaje que el salario pactado.

23. artikulua.— Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat sortuko da, hitzarmen kolektibo hau interpretatzeko, alderdiak adiskidetzeko, eztabaidak ebazteko eta hitzarmen kolektiboa betetzen den zaintzeko.

Osaera

Batzorde Paritarioa osatuko dute hitzarmen kolektiboa sinatu duten erakunde sindikalek eta enpresa-erakundeek.

Sindikatu bakoitzak hautatutako kide banak osatuko dute ordezkari-tza sindikala eta sindikatu bakoitzak hautatutako beste hainbeste kidek osatuko dute enpresa-ordezkari-tza.

Batzorde Paritarioio kideek idazkari bat aukeratu behar dute elkarren artean.

Batzorde Paritarioaren helbide ofiziala EAEko Lan Harremanen Kontseiluaren helbidea izango da: Urkixo zumardiko 2. zenbakiko 3. solairua (Bilbo).

Prozedura

Batzorde Paritarioan aztertuko diren gaiak gehienez 7 eguneko epean ebatzi beharko dira.

Batzorde Paritarioari proposatzen zaizkion aztergai buruzko txostenak, memoriak edo bestelako dokumentuak badaude, zenbat kidek osatzen duten Batzorde Paritarioa, hainbat kopia aurkeztu behar dira.

Batzorde Paritarioak aztergai baten berri duenean, erakundeek helarazi behar die, posta elektronikoko edo fax bidezko jakinarazpen baten bidez ahal dela. Era berean, hitzarmen kolektiboa sinatzen duten erakundeek Batzorde Paritarioan dituzten ordezkariak eman behar diete aztergai berri.

Batzorde Paritarioan ordezkariak dituzten erakundeek aholkulariak izenda ditzakete, batzordearen bileretan parte hartzeko. Aholkulariek hitza izango dute, baina ez botorik.

Batzorde Paritarioaren erabakiak ordezkari-tza bakoitzaren (sindikatuena eta enpresarena) gehiengoek onartu behar dituzte, eta, gehiengoak kalkulatzeko, hitzarmena sinatzen duten erakundeek Hitzarmen Kolektiboa Negoziatzeko Batzordean dituzten ordezkarien ehuneko hartu behar da kontuan.

Funtzioak**1. Hitzarmen kolektiboa interpretatzea.**

Kontsulta egiten duten aldeek mahaigaineratu dituzten gaietara mugatu behar dute Batzorde Paritarioaren erabakiek, eta kontuan hartu behar dituzte eskatzaileek zuzenean edo Batzorde Paritarioaren eskaerari erantzunez aurkezten dituzten dokumentu osagarriak eta Batzorde Paritarioaren balorazioak.

Batzorde Paritarioaren erabakiak hitzarmen kolektiboa bezain eraginkorrak izango dira alde juridikotik, Langileen Estatutuko 91.4. artikulua xedatzen duenarekin bat.

Hitzarmen kolektiboaren interpretazioari edo aplikazioari buruzko gatazka kolektiboetan, beste prozedura judicial edo ordezkari-tza planteatu aurretik, Batzorde Paritarioak hartu behar du esku.

Batzorde Paritarioak nahitaez ebatzi beharko ditu, PRECOren gatazka borondatez ebazteko prozedurari ekin aurretik, hitzarmen honetan ezarritako lan-baldintzak enpresan ez betetzea buruzko auziak.

2. Itundutakoa betetzen dela zaintzea.

Desadostasunik sortzen bada Batzorde Paritarioaren barruan haren eskumenen inguruan, GEP bitartekaritza- eta arbitraje-prozedurara jo dezakete sinatzaileek.

24. artikulua.— Jaiegunetako lana

Eusko Jaurlaritzak ezarritako ordaindu beharreko eta berreskuragarriak ez diren jaiegunetan (14 jaiegun urtean) zerbitzuak ematen dituzten hitzarmen honen eraginpeko langileek, lan egindako egun bakoitzeko 8 euro jasoko dituzte.

Artículo 23.— Comisión paritaria

Se acuerda establecer una comisión paritaria como órgano de interpretación, conciliación, arbitraje y vigilancia del cumplimiento del convenio colectivo.

Composición

La Comisión Paritaria está integrada por las organizaciones sindicales y empresariales firmantes del Convenio Colectivo.

La representación sindical se conformará por un miembro designado por cada sindicato y la representación empresarial por el mismo número de miembros designado por cada sindicato.

De entre los miembros de la Comisión Paritaria se elegirá a una que realizará las labores de Secretaria.

Será domicilio oficial de la Comisión Paritaria el del Consejo de Relaciones Laborales en Bilbao, en calle Alameda de Urquijo, 2-3.º.

Procedimiento

Los asuntos sometidos a la Comisión Paritaria deberán resolverse en el plazo máximo de 7 días.

Cuando los asuntos planteados a la Comisión Paritaria incorporen informes, memorias o relación de otros documentos se presentará un número de copias igual al de miembros de la Comisión Paritaria.

Recibido en la sede de la Comisión Paritaria el asunto a ello sometido, se dará traslado a las organizaciones mediante notificación preferentemente por correo electrónico, fax, correspondiendo a las mismas la notificación a las personas que les representen en la Comisión Paritaria.

A las reuniones de la Comisión Paritaria podrán asistir con voz pero sin voto, los asesores que designen las organizaciones presentes en la misma.

Los acuerdos de la Comisión Paritaria serán adoptados por mayorías de cada una de las representaciones, social y empresarial, atendiendo a los porcentajes de representación que las distintas organizaciones tuvieran en el banco social y empresarial de la Comisión Negociadora del Convenio Colectivo.

Funciones**1. Interpretación del Convenio Colectivo.**

El acuerdo adoptado por la Comisión Paritaria se contraerá a lo planteado por la parte consultante teniendo en cuenta la documentación complementaria aportada por el solicitante directamente o a requerimiento de la Comisión Paritaria, y las valoraciones que la Comisión Paritaria realice.

Los acuerdos de la Comisión Paritaria tendrán la misma eficacia jurídica que el texto del Convenio Colectivo de conformidad a lo establecido en el artículo 91.4 del Estatuto de los Trabajadores.

En los conflictos colectivos que versan sobre la interpretación o aplicación del Convenio Colectivo deberá intervenir la Comisión Paritaria con carácter previo al planteamiento de otro procedimiento judicial o alternativo al mismo.

La Comisión Paritaria se pronunciará con carácter preceptivo y previo a los procedimientos voluntarios de resolución del Preco, sobre la inaplicación en la empresa de las condiciones de trabajo previstas en el presente Convenio.

2. Vigilancia del cumplimiento de lo pactado.

Las discrepancias que puedan surgir en el seno de la Comisión Paritaria en relación con cualquiera de las competencias podrán ser sometidas por las partes firmantes a los procedimientos de mediación y arbitraje del PRECO.

Artículo 24.— Trabajo en día festivo

Los/as trabajadores/as afectados/as por el presente convenio que presten servicios los días de fiesta abonables y no recuperables decretadas por el Gobierno Vasco (14 fiestas anuales), percibirán por día trabajado la cantidad de 8 euros.

25. artikulua.—Hitzarmen kolektiboaren baldintzak ez aplikatzeko klausula

Hitzarmen honetako lan-baldintzak ez aplikatzea Langileen Estatutuko 82.3 artikulua araberako gauzatuko da.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, enpresek dokumentu honetan hitzartutako lan-baldintzak ez aplikatzea honako baldintza hauetan formulatuko:

1. 15 eguneko kontsulta-epaia irekiko dute enpresek. Epe horretan, enpresaren erabakia eragin duten arrazoiak aztertuko dira, baita horren ondorioak saihesteko edo gutxitzeko aukerarik dagoen eta ondorio horiek langileengan dituzten eraginak arintzeko neurriak zein diren ere. Epe beraren barruan, hitzarmenaren batzorde paritarioa jakinaren gainean jarri beharko da, eta langileen legezko ordezkariari emandako idazkiaren kopia bidaliko zaio.

Kontsultaldian fede onez negoziatu behar dute alderdiek, akordio bat lortzeko. Akordioa lortzeko, enpresa-batzordeko edo -batzordeetako kideen, langileen ordezkarien, edo, egon balego, ordezkariak sindikalen gehiengoaren adostasuna behar da, guztien artean gehiengoordezkariaren bidez.

Enpresaren eta langileen ordezkarien arteko kontsultaldian izandako negoziazioetan adostasuna lortuko balitz, akordio horren berri eman beharko zaio batzorde paritarioari.

2. Kontsulta-aldia amaiturik, desadostasunak baldin badaude, alderdietako edozeinek hitzarmenaren batzorde paritarioaren esku jarri ahal izango du auzia, bost eguneko epean. Batzordeak, gehienez ere, zazpi egun izango ditu erabakia hartzeko, desadostasuna jakinarazi zaionetik kontatzen hasita.

3. Batzorde Paritarioan desadostasuna gertatuz gero, edozein alderdik jo ahal izango du 2000ko otsailaren 16ko Gatazkak Konpontzeko borondatezko Prozedurei gaineko Konfederazioen arteko Akordiora (PRECO) (2000ko apirilaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), bost eguneko epean. Berariaz ezarri da bi alderdien gehiengoak arbitratze-prozeduraren erabakia onartzea erabakitzen badute soilik aplikatuko dela arbitratze-prozedura.

artikulua. 26.—Gaitasun murriztuko langileak

Istripuaren edo gaixotasunaren ondorioz, gaitasuna urrituta duten langileei euren baldintzetara egokitutako lanak emango dizkiete enpresek, betiere horrelako lanposturik badago hutsik.

27. artikulua.—Lan-istripuengatikoa aseguru kolektiboa

Enpresa guztiek heriotzagatiko eta ezintasun iraunkor absolutuagatikoa lan-istripurako aseguru izateko obligazioa ezarri da. Aseguru horren zenbatekoa 35.000 euro izango da urteko lanaldi osoko langileentzat. Eta gainerako langileentzat norberaren lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Aseguruaren klausularen ondorioak indarrean jarriko dira hitzarmena sinatu eta hilabete igaro ondoren.

28. artikulua.—Praktiketako kontratuak.artikulua

Praktikan dauden langileen kontratuei dagokienez, kontratutako langileak betetzen duen kategoriaren soldataren %80 jasoko du praktikaldiko langileak lehenengo urtean, eta bigarrenean, %85.

29. artikulua.—Eguberri- eta urteberri-eguna

Eguberri eguna eta Urteberri eguna langileek beren familiekin ospatu ahal izatearren, abenduaren 24an eta 31n 14:00etan bukatu ahal izango dituzte euren eginkizunak, betiere enpresak eta langileak ados jarrita.

30. artikulua.—Txanda-kontratuak

Txanda-kontratuaren bidez adostutako erretiroa sustatzea adostu da, unean-unean indarrean dagoen arautegiak xedatutakoari jarraiki.

Artículo 25.—Cláusula de inaplicación de las condiciones del convenio colectivo

La inaplicación de las condiciones del presente convenio se llevará a cabo de conformidad con el artículo 82.3 del Estatuto de los Trabajadores.

Mientras persista la vigencia del presente convenio, la inaplicación, por parte de las empresas, de las condiciones de trabajo pactadas en el mismo, se formulara en las siguientes condiciones:

1. Las empresas abrirán el período de consultas de 15 días que versará sobre las causas motivadoras de la decisión empresarial y la posibilidad de evitar o reducir sus efectos, así como sobre las medidas necesarias para atenuar sus consecuencias para los/las trabajadores/as afectados/as. Debiendo en el mismo plazo, poner en conocimiento de la Comisión Paritaria del Convenio, acompañándose copia del escrito formulado a la representación Legal de los trabajadores.

Durante el período de consultas, las partes deberán negociar de buena fe, con vistas a la consecución de un acuerdo. Dicho acuerdo requerirá la conformidad de la mayoría de los miembros del comité o comités de empresa, de los/las delegados/as de personal, en su caso, o de representaciones sindicales, si las hubiere, que, en su conjunto, representen a la mayoría de aquellos.

De producirse acuerdo en las negociaciones desarrolladas durante el período de consultas establecido entre la empresa y la representación de personal, éste deberá ser comunicado a la Comisión Paritaria.

2. En caso de desacuerdo finalizado el periodo de consultas, cualquiera de las partes podrá, en el plazo de cinco días, someter la discrepancia a la Comisión paritaria del convenio que dispondrá de un plazo máximo de siete días para pronunciarse, a contar desde que la discrepancia fuera planteada en la Comisión paritaria.

